

EUSKARA

Testua arretaz irakurri eta galderei erantzun.

ELURRA

Mendillorri auzoa txuri-txuri geratu zen, urtarrilaren 24an, asteazkena, elurra bota zuen eta. Mendillorri txuri-txuri geratu zen. Elurra espaloietan eta errepideetan. Autoek eta autobusek arazoak izan zituzten gure auzotik bai sartzeko, bai ateratzeko.

Mendigoiti ikastetxeko ikasleak, aldiz, beraien zamarrak, botak, txanoak eta eskularruak jantzita, ttipi-ttapa eskolara arazorik gabe ailegatu ziren.



Patioan, elurrak 10 cm-ko altuera lortu zuen. Hori ikusita, 3 urteko ikasle eta irakasleak patiora jolastera atera ziren eta elurrezko panpina polit bat egin zuten (argazkiak zintzilikatuak daude gure web gunean).

Jolas garaian 5. eta 6.mailakoak patiora atera ziren. 5 urtekoak ere atera ziren; Euskal Telebistako kamerak beraiek grabatzera etorri ziren.

Baina ez zen dena poza izan. Elurra errepidean zela-eta autobusak ikasleen bila ez ziren etorri eta bi ateraldi bertan behera geratu ziren. 3. mailakoak PLANETARIUMera joan gabe geratu ziren eta 4 urtekoak KILI-KILLra. Hala ere, esan beharra dago, dagoeneko talde hauen tutoreak telefonoz deika ari direla ateraldi hauetarako data berri batzuk lortzearren.

Mendinet Aldizkari digitala (egokituta)

1.- Zein testu mota da hau?

A.	Albistea.
B.	Biografia.
C.	Iragarkia.
D.	Elkarrizketa.

2.- Heldu ziren neska-mutilak Mendigoiti eskolara?

A.	Bai, oinez.
B.	Ez, Planetariuma joan ziren.
C.	Ez, denak etorri ziren autobusez.
D.	Bai, espaloietan ez zegoen elurrik.

3.- Zeintzuk izan ziren ateraldirik gabe geratu ziren ikasleak?

A.	Hiru urtekoak.
B.	3. eta 4. mailakoak.
C.	ETBra joan behar zirenak.
D.	Lau urtekoak eta 3. mailakoak.

4.- Zer kontatzen da testuan?

	Neguan elurra egin zuela.
	Eskola itxi zutela elurra egin zuelako.
	Elurraren ondorioz, zer gertatu zen eskolan.
	Elurra zela eta, autoak eta autobusak ez zirela eskolara iritsi.

MATEMATIKA

GOAZEN BARNETEGIRA!

Datorren astean barnetegi batera joango gara gelakide guztiok. Hainbat jarduera egingo ditugu han. Ondo pasatuko dugu!




5.- Autobidean, autoek 5,20 € ordaintzen dute eta autobusek erdia gehiago.

Zenbat ordainduko du gure autobusak?



A.	2,60 €
B.	6,50 €
C.	7,80 €
D.	8,80 €

6.- Gelan 12 neska eta 12 mutil gara. Bidaiarako ogitartekoa aukeratzeko, bozketa egin dugu(txorizoa, gazta eta urdaiazpikoa). Hona hemen bozketaren grafikoa:



Adierazi ondorengo esaldi hauek **EGIAZKOAK (E)** ala **GEZURREZKOAK(G)** diren:

	E	G
Nesken erdiek baino gehiagok txorizoa aukeratu dute.		
Bakarrik mutilek aukeratu dute gehiago urdaiazpikoa gazta baino.		
Mutilen erdiek baino gutxiagok urdaiazpikoa aukeratu dute.		
Bai neskek eta bai mutilek gutxien aukeratu dutena gazta da.		

7.- Ogitarteko bakoitza egiteko, ogi-barra baten herena eta 50 g txorizo behar ditugu.

Begiratu prezio hauei:



200 g 1,20 €



Ogi barra 1,20 €

Zenbat balio du ogitarteko bakoitzak?

A.	60 zentimo.
B.	70 zentimo.
C.	80 zentimo.
D.	90 zentimo.

8.- Adierazi “X” batekin motxilan daramatzagun objektu hauek zer forma edo irudi geometriko duten.

								
Prisma								
Zilindroa								
Konoa								
Esfera								

9.- Askaltzeko, platanoa, gazta zati bat, txokolate-barratxoa eta galleta ditugu.

Bi gauza ezberdin aukeratu behar ditugu.



Zenbat konbinazio ezberdin egin ditzakegu?

A.	Hiru.
B.	Lau.
C.	Sei.
D.	Zortzi.

IKASTEN ETA PENTSATZEKO IKASTEKO KONPETENTZIA

MARTXOAK 8 IKASTETXEAN

Zubigorri ikastetxean, Emakumeen Eguna hurbil dagoenez, proposamen hau egin dute egun hori ospatzeko.

Berdintasunaren Eguna deituko diote. Ez dute klaserik izango eta egun osoan hainbat jarduera egingo dituzte: futbol partidua, soka-saltoa, dantza, esku-lanak... Tutoreek esan diete moxorrotuta etorri behar dutela: neskak mutilez eta mutilak neskez jantzita. Aukeratu behar dituzte normalean egiten ez dituzten jolasak eta jarduerak.



10.- Zure ustez, zein da horrela mozorrotuta etortzearen helburua?

A.	Itxura xelebrea hartzea eta elkarri barre egitea.
B.	Neskak mutilen azalean eta mutilak neskenean jartzea.
C.	Ondo pasatzea.
D.	Inauteriak ospatzea.

11.- Zure ustez, zergatik aukeratzen dituzte normalean egiten ez dituzten jolas eta jarduera horiek?

A.	Mutil askok egiten dituzten gauzak neska guztiek egiteko aukera izateko eta alderantziz.
B.	Jolasak eta jarduerak gaizki egiteko eta elkarri barre egiteko.
C.	Elkarrekin ondo pasatzeko.
D.	Jolas eta jarduera berriak ikasteko.

12.-

Egun horretan egingo dituzten jolasetan parte hartzeko, ikasleek beraientzat ohiko ez direnak aukeratu eta taldeak egin beharko dituzte. Joni futbola asko gustatzen zaio eta askotan ibiltzen da. Oraingo honetan ezin izan du hori aukeratu eta soka-salto jolasean apuntatu behar izan du, baina ez du nahi. Ez daki jolasten eta talde horretan sartu diren guztiek zerbait badakite.

Gainera, talde guztiek ondo egin nahi dute saria irabazteko.

Talde horretakoa bazina, zer egingo zenuke?

A.	Haserretuko egingo nintzateke Jon gure taldean egoteagatik.
B.	Ondo pasatu eta Jonez barre egin.
C.	Ez nuke ezertxo ere ez egingo, egun bateko jolasa besterik ez da eta.
D.	Oraindik aste bete falta denez, praktikatzen lagundu.

13.- Zure ikastetxean horrelako jaia ospatuko balitz, zer egingo zenuke?

A.	Niretzat erabat berria den jolasa aukeratuko nuke, horrela zerbait berria ikasiko bainuke.
B.	Jolas ezaguna aukeratuko nuke ahalegin gutxiago egiteko.
C.	Beste edozein egunetan bezala, nire jolas gogokoena aukeratuko nuke.
D.	Nire lagunek aukeratutako jolasean arituko nintzateke.

INGURUNEA

ENERGIA

Energia mundua ibilarazten duen motorra da. Energiarik gabe ezin genezake gure etxea argiztatu ezta berotu ere, ezin genezake telebista ikusi, ibilgailuz mugitu ezta beste gauza asko egin ere.

Energia gure etxera elektrizitate edo gas moduan heltzen da batez ere. Energia-iturri hauek beroa, argia, mugimendua eta abar lortzeko erabiltzen ditugu.



14.- Adieraz ezazu etxeko gailu edo tresna hauetako zeintzuek erabiltzen duten energia elektrikoa.

	BAI, ENERGIA ELEKTRIKOA ERABILTZEN DU	EZ DU ENERGIA ELEKTRIKORIK ERABILTZEN
Hozkailua.		
Kraskagailua.		
Ile-lehorgailua.		
Arropa eskuila.		
Kortxo-torlojua.		
Ordenagailua.		
Telebista.		


15.-

Airearen kutsadura, neurri handi batean, energiaren gehiegizko kontsumoaren ondorioa da. Honegatik, beharrezkoa den energia kopurua baino ez da gastatu behar.

Adieraz ezazu hurrengo ekintzen artean zeintzuek aurrezten duten energia:

	ENERGIA AURREZTEN DU	EZ DU ENERGIARIK AURREZTEN
Hozkailuaren atea ongi ixteak.		
Berogailua egun osoan zehar piztuta uzteak.		
Aire egokitua udan erabiltzeak.		
Bainatu beharrean dutxa bat hartzeak.		
Geletatik irteterakoan argiak itzaltzeak.		
Beste zerbait egiten ari zarenean telebista piztuta uzteak.		
Egun argia irakurtzeko erabiltzeak.		
Berogailua piztuta dagoenean leihoak ixteak.		

16.-3. Hasierako informazioa kontuan hartuta, adieraz itzazu 1 eta 2 zenbakietan falta diren hitzak.



A.	1 Gasolina eta 2 Eolika.
B.	1 Berriztagarriak eta 2 Olatuak.
C.	1 Berriztagarriak eta 2 Gas naturala.
D.	1 Zikinak eta 2 Hidraulikoa.